


I.- EGINDAKO IKERKETAREN METODOLOGIA

- 1.- Lanaren helburuak
- 2.- Informazio iturriak
- 3.- Inkesten deskribapena
- 4.- Parte hartzaileak
- 5.- Inkestak betetzeko prozedurak
- 6.- Metodologia
- 7.- Datuen analisisa



1.- LANAREN HELBURUAK

Informe honen asmoa, atarian esandakoa gogoratu, "Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren" proposamenari kontraste fasean jasotako datuen analisiak eta egindako ebaluazioa azaltzea da. **Ebaluazioaren helburua** da, batetik, aurkeztutako curriculum nola baloratzen den jakitea eta zein diren hobekuntza proposamenak ezagutzea, horiek aztergai izan den curriculumean txertatzeko eta hobetzeko. Eta asmo horrekin batera, eta aurreko helburua bezain garrantzitsua dena da, curriculum hori indarrean jarri aurretik, hezkuntza erkidegoari ezagutaraztea, ikastetxeetan hausnarketa bidean lehen pausoa ematea, eta ondoren hori aplikatuko dutenek, ahalik eta atxikimendurik handiena lortzea.

2.- INFORMAZIO ITURRIAK

Euskal Curriculumaren proposamena ebaluatzeko, **bi informazio iturri** erabili dira: inkesten bidezkoa, bata, eta informeen bidezkoa, bestea. Inkesten bidez, egitasmoa babestu duten hezkuntza eragileen ikastetxeek emandako informazioa jaso da; eta informeen bidez, eskolaz kanpoko aditu, hezkuntza eta gizarte eragileek emandakoa. Informazio iturri nagusia inkesten bidezkoa izan da, bera baita kuantitatiboki erabiliena, osatuena eta sistematizatuena. Hala ere, informeen bidez jasotakoa ere, oso baliagarria gertatu da hobekuntza proposamenak egiteko.

3.- INKESTAREN DESKRIBAPENA

Curriculumaren esparruan badira gai batzuk hezkuntzaren ikuspegi orokorrek zer ikusia dutenak, hala nola, hezkuntzaren xedeak, konpetentzia orokorrak, jarrera eta prozedura metadiziplinarrak. Gai horiek, hezkuntza erkidegoko partaide guztiek (guraso, irakasle, ikasle...) elkarrekin aztertzeak eta garatzekoak dira. Badira, ordea, curriculumaren garapenean, zuzenean, irakasleen ardurapean dauden ikas arloak. Horien balorazioa eta hobekuntza proposamenak egitea irakasleei dagokie. Ikas arloak eta horien edukia DBH bukatzen duten ikasleei begira prestatu direnez, DBHko eta DOBHko irakasleak dira proposamenaren ebaluazioa egin dutenak.

Irizpide horri jarraituz, bi inkesta mota prestatu ditugu. Batetik, curriculumaren eremu orokorra ebaluatzeko, hezkuntza erkidegoaren estamentu edo sektore guztiek erantzun beharrekoa. Eta bestea, diziplina arloak ebaluatzeko, bereziki bigarren hezkuntzako irakasleek erantzun beharrekoa.

INKESTA MOTA	PARTE HARTU DUTEN ESTAMENTUAK					ADITU, HEZKUNTZA ETA GIZARTE ERAGILE
	Titularrak eta gurasoen ordezkariak	Zuzendaritza	Irakasleak		Ikasleak (16 urte)	
			HH/LMH	DBH/DOBH		
Eremu orokorra:						
1.Planteamendu orokorra	x	x	x	x	x	x
2.Hezkuntza konpetentzia orokorrak	x	x	x	x	x	x
3.Jarrera metadiziplinarrak	x	x	x	x	x	x
4.Prozedura metadiziplinarrak	x	x	x	x	x	x
Diziplina arloak:						
1.Hizkuntzak eta Literatura				x		x
2.Matematika				x		x
3.Teknologia				x		x
4.Plastika eta Ikus adierazpena				x		x
5.Musika eta Dantza				x		x
6.Soin Heziketa				x		x
7.Gizarte Zientziak				x		x
8.Mundu ikuskerak eta Erljiok				x		x
9.Natur eta Osasun Zientziak				x		x
10.Tutoretza eta Orientazioa				x		x

Inkesta guztiek bi atal dituzte: item bakoitzari buruzko balorazio kuantitatiboa ematekoa bata, eta bestea, hobekuntza proposamenak, iruzkinak eta inkestari erantzun kualitatiboak ematekoa.

Balorazio **kuantitatiboa**, 1etik 5era bitarteko Likert eskala bat erabiliz egin da. Adibidez, "Planteamendu orokorra" ebaluatzeko inkestaren 1. itema horrela azaltzen da:

	1	2	3	4	5
1.- Euskal Curriculumerako proposaturiko hezkuntzaren xedeak baliozko erreferentziak dira bizitza osorako, eta derrigorrezko eskolaldiari zentzua eta orientazioa emateko balio dute <i>4.kapitulua: Hezkuntzaren xedeak, 25-28 or.</i>					

1= Erabat desados; 2 = Desados; 3 = Ez alde eta ez aurka; 4 = Ados; 5 = Erabat ados

Balorazio **kualitatiboa** jasotzeko, adibidez, "Planteamendu orokorra" inkestan, hauek izan dira galdetutakoak:

- **Planteamendu orokorra hobetzeko proposamen zehatzak** (*Kontuan hartu ez diren eta garrantzizkoak irizten direnak, kontuan hartu arren hobetu daitezkeenak...*)
- **Iruzkinak** (*Emandako balorazioari buruzko arrazioen azalpena, proposamenak...*)
- **Inkesta erantzuteko erabilitako bidea** (*Parte hartu duten pertsonen kopurua, pertsona horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabilitako metodologia...*)

4.- PARTE HARTZAILEAK

Bi populazio mota aurreikusi dira ebaluazio prozesuan parte hartzeko: batetik, egitasmoa babestu duten hezkuntza eragileen ikastetxeak; eta bestetik, hezkuntza-irakaskuntza esparruko aditu eta gizarte eragileak.

Inkestak erantzun dituzten ikastetxe kopurua:

Guztira 219 ikastetxe erantzun dute, horietatik 85 ikastola, 109 kristau eskola, eta 25 ikastetxe publiko (ikus 11. Eranskina)

	EAE			Nafarroa	Iparraldea	Guztira
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa			
Ikastolak	6	16	26	12	25	85
Kristau eskolak	11	52	46	-	-	109
Eskola publikoak	2	6	7	10	-	25
Guztira	19	74	79	22	25	219

Iruzkinak:

- Ikastola sarean, 98 ikastola dira guztira: Araban 8, Bizkaian 22, Gipuzkoan 29, Nafarroan 14 eta Iparraldean 25. Ikastola horietatik 85k erantzun dute inkesta, hau da, %89,47ak. Ikastola horietan 40.622 ikasle ari dira, ikastoletan ari den ikasleria guztiaren %89a.
- Kristau Eskolaren sarean, EAEko lurraldean 150 ikastetxe dira guztira: Araban 22, Bizkaian 70 eta Gipuzkoan 58. 150 ikastetxe horietatik 98k erantzun dute, hau da, %65ak. Ikastetxe horietan 60.033 ikasle ari dira, Kristau eskoletan biltzen den ikasleri guztiaren %70,33a. Kristau Eskolaren multzoan beste 11 ikastetxe gehiago, gehienak elizbarrutikoak, agertzen dira. Guztira, 109 ikastetxe erantzun dituzte inkestak
- Administrazioen Eskola publikoetako partaidetza murriztagoa izan da. 25 ikastetxe izan dira guztira inkestak erantzun dituztenak: Araban 2, Bizkaian 6, Gipuzkoan 7 eta Nafarroan 10. Ikastetxe horietan 9.715 ikasle ari dira.

Parte hartu duten aditu, hezkuntza eta gizarte eragileak:

Eskolaz kanpoko hezkuntza erakunde eta zerbitzuak, ikas arloetako adituak, eta gizarte eragileak ere parte hartu dute; inkesten bidez batzuk, eta beste batzuk txostenak idatziz. (Ikus, 11. Eranskina)

5.- INKESTAK BETETZEKO PROZEDURA

Inkestak betetzeko informazioa, antolaketa eta epeak:

Curriculumaren proposamenari eta inkestak betetzeko prozedurei buruzko informazioa, jarraipena eta inkestaren bilketa arauak elkarrekin adostu ondoren, horren kudeaketa, egitasmoan inplikaturik dauden eskola sare bakoitzak (ikastola, kristau eskola eta ikastetxe publiko) bere aldetik egin du. Hala ere, sare guztietan egin dira informazio bilerak, bilera orokorrak sektore osoarentzat eta sarritan baita bilera espezifikoa ere ikastetxe bakoitzarekin. Ohikoa izan da ikastetxe bakoitzean koordinatzaile bat egotea, estamentu desberdinetako kideak koordinatu ahal izateko. Informazio eta inkestaren erantzunen honen iraupena 2006ko urtarrilaren bukaeratik ekainaren bukaera artean izan da.

Inkestak erantzuteko argibideak:

Inkesta bakoitzaren atarian argibideak eman dira. Adibidez, "Prozedura metadiziplinarren" inkesta betetzeko ondorengo azalpenak eman dira:

- Inkesta honen helburua, Euskal Curriculumean jasotzen diren prozedura metadiziplinarrei buruz duzuen iritzia ezagutzeko da.
- Horretarako informazioa, "Oinarrizko txostenean" 83-84. orrialdeetan aurkitzen da.
- Item bakoitzari erantzuteko irizpidea, item bakoitzaren edukiak zein neurritan eragiten duen, zuen ustez, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzerakoan lortu beharko lituzkeen prozedurak eskuratzeko, balorazioetik dator.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da, dagokion laukian X seinatuz, eskala honen arabera: 1=Hutsala; 2=Garrantzi gutxi; 3=Nahiko garrantzi; 4=Garrantzi handia; 5=Behar-beharrezkoa
- Inkestaren bukaeran, hobekuntza proposamenak eta iruzkinak egiteko, eta inkestari erantzuteko erabilitako bideak azaltzeko tokia eskaintzen da.

Inkestaren itemak ezin dira zuzenean erantzun, bertan azaltzen den orrialde erreferentziara jo behar da eta osorik, bere testuinguruan irakurri. Honela, bide batez, Euskal Curriculumaren proposamena sakonean ezagutzeko bidea urratzen dugu. Adibidez, "Planteamendu orokorra" ebaluatze inkestaren 1. itema horrela azaltzen da:

	1	2	3	4	5
1.- Euskal Curriculumerako proposaturiko hezkuntzaren xedekak baliozko erreferentziak dira bizitza osorako, eta derrigorrezko eskolaldiari zentzua eta orientazioa emateko balio dute 4.kapitulua: Hezkuntzaren xedekak, 25-28 or.					

1= Erabat desadostas; 2 = Desadostas; 3 = Ez alde eta ez aurka; 4 = Adostas; 5 = Erabat adostas

Item hori erantzuteko, "Hezkuntzaren xedekak" (4. kapitulua, 25-28 or.) irakurri behar da, bakoitzak irakurritakoa taldean eztabaidatu, iritzia kontrastatu, 1-5 bitarteko eskalaren barruan taldearen balorazioa adostu, emandako balorazioari buruzko arrazoiak azaldu, eta bere kasuan hezkuntza xedeei buruzko hobekuntza proposamenak egin. Prozedura honek iritzia kontrastatzera, arrazoiatzera, hobekuntzak proposatzera, azken batean gaian sakontzera derrigortzen du.

Erantzunak estamentutik eta ez bakarka:

Hezkuntza erkidego osoak (guraso, zuzendaritza, irakasle, ikasle...) du zerikusia curriculumaren gaiarekin, nahiz eta bakoitzak bere eragin-esparrua izan. Curriculumaren egitasmoa erabakitzea, indarrean jartzea eta ebaluatzea ez da bakarka eta bakoitzak bere aldetik egin beharreko lana, indarrak elkartuz eta adostasunean egiteko baizik. Beti ere, arestian esan bezala, gogoan izanik hezkuntza erkidego osoak erantzun behar duela curriculumaren marko orokorra eta irakasleek ikas arloei dagokiona.

Curriculumaren aplikazioa erabakitzea, garatzea eta ebaluatzea ez dira bakarka hartzeko erabakiak, instituzionalak baizik. Hori horrela izanik, curriculumaren proposamenaren ebaluazioa bakarka egitea baino egokiagoa da taldean egitea, irizpideak kontrastatuz eta adostuz. Hori da Euskal Curriculumaren ebaluazio egiteko hartu dugun bidea. Ebaluazioa estamentutik egin da. Adibidez, gurasoen estamentuan, guraso bakoitzak beteko zuen bere inkesta, baina antolatzaileek jasotakoa ez da izan bakoitzaren erantzuna, estamentu osoak adostutakoa baizik. Datuak biltzeko erabilitako prozedura hori kontuan hartzeko da informe honetan agertzen diren parte hartzaileen kopurua zuzen interpretatzeko. Hau da, informean agertzen bada 203 guraso izan direla parte hartu dutenak, 203 guraso talde izan direla interpretatu behar da. Gauza bera, beste estamentu guztietan ere.

6.- METODOLOGIA

Atal honetan, azterketan lortu eta garatu den osagarritasun metodologikoaren aukeraren deskribapena aurkezten dugu.


Planteatutako helburuak lortzeko, osagarritasun metodologikoaren bidea aukeratu da. Aukera honek, bai metodologia kuantitatiboa bai metodologia kualitatiboen ekarpenak aprobetxatzea ahalbidetzen du.

Metodologia kuantitatibo eta kualitatiboen arteko integrazioa estrategia desberdinak erabiliz burutu daiteke. Bericateg (1988)¹, integrazio metodologikorako aukera desberdinak oinarritzko hiru estrategietan sintetizatuz oso ekarpen interesgarria egiten du. Hiru estrategia horiek osaketa, konbinaketa eta triangelaketa.

Azterketa honetan integrazio metodologikoari osaketa eta triangelaketa aukeretatik heldu zaio. Ikus dezagun aukera bakoitzak zer suposatzen duen:

- Ikerketa berebean, alde batetik orientazio kualitatiboko metodo batetik eta bestetik orientazio kuantitatiboko beste metodo batetik bi irudi sortzen direnean, **osaketa** strategiaren aurrean gaude. Ikusmolde bakoitzak errealitatearen dimentsio bana eskaintzen du. Metodoen estalketa ez da bilatzen. Integrazio metodologikoaren maila gutxienekoa da. Azken produktua bi zati desberdinak dituen txostena da izaten da normaliki; bertan metodo bakoitzaren bitartez lortutako emaitzak agertzen dira.
- **Triangelaketa** strategiaren bitartez errealitatearen ikuspegi osoagoa bilatzen da baina ez bi begirada desberdinen bitartez, errealitatearen dimentsio bakarraren azterketan bi orientabideak erabiliz baizik. Integrazio metodologikoa handiagoa da kasu honetan, metodo bakoitzak aztergaiaren zati bat edo aztergaia osoa ulertzeko eta antzemateko gaitasuna duela kontsideratzen baita. Emaitzen konbergentzia edo bat etortzea bilatzen da. Modu honetan emaitzen baliotasuna indartzen da.

Jarraian aurkezten den irudian bi estrategia hauen adierazpen grafikoa beha daiteke:



Osagarritasun metodologikorako estrategiak.

(Bericat-etik hartua, 1998: 38 orr.)

Azterketa honetan bi osagarritasun estrategiak aplikatzen direla esan daiteke. Alde batetik **osaketaz** hitz egin dezakegu. Kasu honetan metodo desberdinak erabili dira informatzaile bereberekin, alegia, izaera kuantitatiboko Likert motako galdera-sortak eta izaera kualitatiboko erantzun irekiko galderak.

Halaber, **triangelaketaz** hitz egin daiteke. Kasu honetan metodo desberdinen erabilpenak ikuspegi osoa ematea ahalbidetu du bi motako informazioa (kualitatibo eta kuantitatiboa) egiaztatu delarik. Triangelaketak inkestako galdera itxien bitartez jasotako erantzunen interpretazio sakona ahalbidetu du, zeren eta galdera itxi horietan egindako balorazio askoren arrazoiak galdera irekietan aurkitu baitaitezke. Bat gatz Flick²-ekin zera dioenean:

“...las distintas perspectivas metodológicas se complementan mutuamente en el estudio de un problema, y esto se concibe como la compensación complementaria de los puntos débiles y ciegos de cada método individual.” (Flick, 2004: 280 orr.)

Aurreko lerroetan esandakoari eta Flick berari jarraituz, metodoen konbinaketak dituen beste abantaila batzuk aipatu daitezke, besteak beste:

- Emaitza kuantitatibo eta kualitatiboen arteko bat etortzeko aukera, alegia, bata bestek dioena egiaztatzea edota konklusio berdinak bermatzea

¹ Bericat, E. (1998). *La integración de los métodos cuantitativo y cualitativo en la investigación social*. Barcelona: Ariel.

² Flick, U. (2004). *Introducción a la investigación cualitativa*. Madrid: Morata.

- Era bateko zein besteko emaitzek) ikerkuntza-arazoaren alderdi desberdinetan zentratzea. Honek arazoaren ikuspegi osatuagora eramango luke
Emaitza kualitatibo eta kuantitatiboak bat ez etortzeko edo kontraesankorrak izateko posibilitatea begietsi behar da. Egoera honek desadostasunen interpretazio teorikora eraman beharko luke. Honek, ikerketaren emaitzak baliorik gabe ez uzteaz gain, lortutako emaitzen baliotasun handiagora darama.

7.- DATUEN ANALISIA

Proiektu osoan erabilitako metodologia datuen analisiak egiteko erabiliko den bera izango da, alegia datu kuantitatibo eta kualitatiboaren osagarritasunean eta, era berean, informazioaren bilketa aurreko atalean azaldu den bezala bi eratara egin da.

7.1.- ANALISI KUANTITATIBOAK

Behin datu bilketa amaitu informatizazioarekin jarraitu zen. Hasiarako arazketa egin eta gero, SPSS programa estatistikoa erabiliz analisi estatistikoak burutu ziren.

- Egindako analisi estatistikoak hurrenez hurren:
- Inkesten ezaugarri teknikoaren analisia. Inkesta bakoitza, banatuta dagoen azpi-proba bakoitzaren tinkotasunaren kalkulua. Azpimultzo bakoitzeko itemen fidagarritasuna neurtzeko. Cronbach-en Alfa erabili da
 - Aldagai bakarreko analisi deskriptiboak.
 - Balorazioen alderaketa. Batzbestekoaren konparaketa egin da, bai inkesta osatzen duten itemen artean baita erantzun duen laginarekin egindako azpimultzoen artean ere (bariantza-analisia). Horretarako, honako aldagaiak hartu dira kontutan:
 - Ikastetxe mota
 - Lurraldea
 - Hizkuntza eredua
 - Estamentua

Itemen balorazioen eta lagin osoa osatzen duten erantzuleen balorazioen desberdintasunen adierazgarritasuna aztertzeko bariantza-analisia erabili da.

Txosten tekniko honen egileok jabetzen gara datuak biltzeko jarraitutako prozeduraren adierazgarritasuna eta ordezkagarritasuna ez direla lotzen zoriz aukeratuz gero lortu daitezkeen adierazgarritasun balioetara, hots, desberdintasunak hutsalak edo harremanik ez egotearen probabilitatera. Hau dela eta, txosten honetan bariantza-analisiaren emaitzak ez ditugu azalduko.

7.2.- ANALISI KUALITATIBOAK

Informazio kualitatiboaren bilketa erabat amaitu denean, jasotako informazio guztiaren analisi intentsiboarekin hasi gara. Horretarako ondoko prozedura hau jarraitu da:

<p>1.URRATSA: Informazioaren laburketa.</p> <ul style="list-style-type: none">a. Analizatu beharreko informazioaren hautaketa eta identifikazioa.b. Analisiaren helburuen zehaztapena.c. Katégoria sistema baten ezarpena.<ul style="list-style-type: none">i. Erregistro unitatearen hautaketa.ii. Katégoria sistemaren ezarpena.iii. Katégoria bakoitzerako kodeak identifikatu.d. Katégoria sistemaren azterketa pilotua.e. Kodifikazioa. <p>2.URRATSA: Informazioaren antolaketa eta aurkezpena.</p> <p>3.URRATSA: Emaitzen analisia eta interpretazioa.</p>
--

Koadroa. Informazio kualitatiboaren analisirako prozedura.

Aurreko koadroan antzeman daitezkeen urratsen arabera, jasotako informazioaren analisi kualitatibo ulerkorra jarraitu da. Horretarako katégoria batzuk hautatu eta identifikatu behar izan dira. Prozesu hau bide induktiboa edo deduktiboa jarraituz egin daiteke. Gure kasuan, prozedura nahasia jarraitzea erabaki da. Hau da, aurretik errebisio bibliografikoan eta ebaluatzaileen eskarmentuan oinarrituz (prozedura deduktiboa) katégoria batzuk *a priori* ezarri dira. Ondoren, jasotako informazio guztia katégorizatzen joan garenean, katégorien sistema moldatzen joan gara, benetan jasotako datuetara egokitu zedin (prozedura induktiboa).